



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 10a

122. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitatean garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzuan egonen den Banka Publikoa sor dezan. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azalera handiko saltokien ixte-ordutegia muga dezan. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pandemian zehar behar bezalako arreta sanitarioa eman diezaieten gaixo onkologikoei. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes-material egoki eta kalitatezkoa helaraz diezaien pertsona kalteberei. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Diputatuen Kongresua premiatzen dira berma dezaten irakaskuntza gaztelaniaz eta kasuan kasuko lurraldeetan koofizialak diren gainerako hizkuntzetan jasotzeko eskubidea, gaztelania lurralde nazional osoan komunikazio-hizkuntzat har dadin, eta gainerako hizkuntza koofizialak ere halakotzat har daitezen dagozkien lurraldeetan. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen da modu argi eta zehatzean adieraz ditzan hezkuntza maila bakoitzerako mailaz igotzeko eta titulua emateko irizpideak. José González Felipe jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren sektoreko jarduerak susta ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diseina ditzan gizon helduei zuzendutako indarkeria matxistei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa premiatzen da 2020an ekin diezaien AP-68 autobideko lotunea osatzeko aurreikusitako obrei, Lodosako 14. lotunean. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea (12. or.).

- Erabakia Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren tresnak eta baliabideak gaitu ditzan Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea garatzeko. Lehendakari-zako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da al bait lasterren egin ditzan beharrezkoak diren kontratazioak eta plantilla-handitzeak, administrazio zentralarekiko izapideetako atzerapen larriak eta itxarote-zerrendak onbideratzeko. Lehendakari-zako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Espetxeetako Osasungintzaren transferentziari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (14. or.).
- Galdera, sexuaren araberako segregazioa egiten duten ikastetxeak funts publikoekin finantzatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Luzatzea Mahaiaren 2020ko urriaren 26ko erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzen baita (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitatean garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzuan egonen den Banka Publikoa sor dezan.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Foru Komunitatean garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzuan egonen den Banka Publikoa sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

COVID-19ak sorturiko pandemiaren ondoriozko egungo krisi ekonomiko eta sanitarioa bete-betean doanean, banka pribatua bere bankukomisioak igotzen eta baldintzak zorrotzen ari zaie aktibotasun txikieneko bere bezeroei. "Aktibotasun txikieneko bezero" eufemismoaren atzetik egiazki ezkututzen dena da gehienbat diru-sarrerarik apaleneko bezeroak direla igoera horiek pairatzen ari direnak.

Mantentze-komisioak, administraziokoak, banku-transferentzien ondoriozkoak, txekeak

kobratu eta jaulkitzekoak, gutunak eta sms-ak bidaltzeagatikoak, txartelak jaulki eta berri-tzeagatiko kuotak, edo kutzazainetatik dirua ateratzeagatikoak, finantza-zerbitzuen erabiltzaileak ordaindu beharrean gertatzen diren gainkostueta-ko batzuk besterik ez dira.

Kontrajarririk bere mozkinak kosta ahala kosta maximizatzea bilatzen duen banka pribatuaren eredu horri, zeinean bankari ez baitzaio axola bere bezero propioak lukurreriazko komision bidez zukutzea, apustu egin behar dugu egun dauden abusuekin amaituko duen banka publiko baten alde.

Funtsezkoa da zerbitzu eta produktu finantzarioetarako irispidea demokratizatuko duen banka publiko bat sortzea, zeinak gordailuak eskuratu eta kredituak eskainiko baitizkie langile-familiei, ekonomia sozialeko entitateei, enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei. Banka publiko honek mugak ipini behar dizkio banku-oligopolioari, zeinak langile-klasea odolusten baitu, eta bankarien espekulaziozalekeriari aurre egin.

Banka publiko hori sortze aldera, proposatzen dugu kapitaliza daitezela Nafarroako Kutxa Fundazioak dituen baliabideak, ehunka milioi euro Caixa Bank-en akzioetan.

2008ko krisi ekonomikoaren jatorrian egonda-ko faktore erabakigarri bat izan zen, austeritate-politika masiboekin batera, banka pribatuak finantzatze-iturria itxi zuela, eta horrek bereziki kaltetu zituen enpresa txiki eta ertainak eta langile-familiak. Gaur den egunean, ezin dugu onartu banka pribatu horrexek berak bere irabazi joriei eusteko bermea eduki nahi izatea, nola eta diru-sarrera apalena dituzten herritarrak komisio neurrigabe- en bitartez zukutuz.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerrako talde parlamentarioak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du banka publiko bat sor dezan Nafarroan, Foru Komunitatearen garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzura egonen dena, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du helburu hori betetzera.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du beharrezkoa den prozedura ezar dezan, banka pribatuari eragozte aldera diru-sarrera apalak dituzten bezeroei komisioak kobratzea beren banku-kontuetan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azalera handiko saltokien ixte-ordutegia muga dezan.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azalera handiko saltokien ixte-ordutegia muga dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Saltokien irekialdiari buruzko eztabaida eta, batez ere, ordutegiei eta jaiegunei buruzkoa, zenbait arrazoirengatik nagusituz joan da. Lehenik eta behin, gizartea eta langile-jendea gero eta jabetuago gaude ezen lanari eskaintzen diogun denborari muga bat jartzeak ez duela soilik produktibitatea areagotzen, baizik eta osasungarria ere badela, familiako bizitza eta lana uztartzearen ikuspegitik.

Hain zuzen ere, zenbait dendak eta azalera handiko saltokik, azken eguberri hauetan bertan, erabaki zuten ez irekitzea jaiegunetan, beren langileria ongizatea aintzat harturik. Ez dago jaiegunetan ez eta gaueko ordutegian lan egiteko beharrik, ez eta ordu horietan kontsumitzeko beharrik ere.

Joan den urtarrileko merkealdian, Conforama bezalako azalera handi batek erabaki zuen bere saltokia 24:00ak arte irekitzea. Gainera, 22:00etatik 24:00etara bitartean agertzen ziren bezeroei 100 euroko saria ematen zien, 500 euro baino gehiagoko erosketa eginez gero. Aurrekaririk gabeko urratsa, arbitrarioki eta aldebakartasunez erabakitakoa.

Saltokiak ireki bai ala ez arautzen duten akordioek ez dute eraginik jabeengan eta langileria-rengan bakarrik: erabaki horien azpitik halaber datza nahi dugun gizarte-ereduari buruzko eztabaida. Onartezina da azalera handi bat 24:00ak arte ireki nahia, horrek ehunka langileren bizimodua hausten baitu; batez ere, lanaldi zati-tuak egiten baldin badira.

Halaber, konpli da gogoeta egitea egun berezietako ordutegiei buruz, hala nola abenduaren 24 eta 31koa eta urtarrilaren 5koa. Zentzutasun hutsekoa da egun horietako ordutegiak arrazionalizatzen saiatzea.

Izan ere, abusuzkoak diren horrelako ordutegiek ez dituzte ukitzen azalera handi horietan lan egiten duten pertsonen eskubideak bakarrik; horrez gain, inpaktu negatiboa izaten dute merkataritza txikiaren ehunduran. Azken urteotan, merkataritza txikiko establezimenduak bezala haietan diharduten langileen kopurua ere gutxitzen joan da.

Bestetik, Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea guztiz baldintzaturik dago ordutegiak eta jaiegunetako irekialdia arautzen dituen estatu-mailako dekretuak xedatzen duenera. Horregatik, funtsezkoa da estatu-mailako legediak autonomia erkidego bakoitzaren eskuetan utz dezan gai horren araupetzea egitea, tokian tokiko errealitate turistikoa, ekonomiko eta sozialaren arabera.

Esate baterako, Kataluniak merkataritzari, zerbitzuei eta feriei buruzko abuztuaren 1eko 18/2017 Legearen 36.a artikuluan ezarri zuenez, "merkataritza-establezimenduek ezin dute irekita egon, ez eta salmenta-jarduerarik egin ere, urritik maiatzera bitartean, biak barne, 21:00etatik 06:00ak arte; eta ekainetik irailera arteko hilabeteetan, biak barne, 22:00etatik 07:00ak arte". Muga hori ezarri zen 37. artikuluan zehazturiko salbuespenekin, eta errespetatu egiten ditu saltoki txikiak eta intereseko beste jarduera batzuk.

Nolanahi ere, Nafarroak zentzuzko mugak jarri ahal eta jarri behar dizkie lehen aipaturiko abusuari, bere eskumenak egikaritzuz eta ixte-ordutegian gehieneko muga bat zehaztuz; betiere, bai estatu-arauak bai Foru Komunitatekoak jasotzen dituzten xedapenak betetik, normala denez.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mugatu dezan azalera handiko saltokien ixte-ordutegia, jardunik gabeko ordu batzuk ezarri, zenbait autonomia erkidegok jadanik egiten duten bezala.

2. Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresuari eskatzen dio alda dezan 1/2004 Legea, abenduaren 21ekoa, merkataritza-ordutegiei buruzkoa, zeina aldatuz gertatu baitzen aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren V. tituluak xedatutakoaren ondorioz. Helburua da autonomia erkidego bakoitzak zehatz dezala zer igande eta jaiegunetan izanen duten irekitzeko aukera saltoki handiek.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio kanpaina bat egin dezan gizartearen kontzientziatze-lana egiteko igande eta jaiegunetan erosteak hainbat arlotan duen eragin negatiboari buruz.

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pandemian zehar behar bezalako arreta sanitarioa eman diezaieten gaixo onkologikoei.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita pandemian zehar behar bezalako arreta sanitarioa eman diezaieten gaixo onkologikoei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da minbizia duten gaixoei osasun-arreta egokia eskaini diezaien Covid-aren testuinguruan.

Covid-aren pandemiak agerian utzi du onkologiko gaixoen gaineko inpaktua zuzeneko izan dela, konfinamenduaren ondorioengatik eta ospitaleratzeen zama zela-eta arretak pairatu zuen atzerapenarengatik. Minbizia, SARS-CoV2 bezala, Nafarroako Osasun Sisteman dagoen errealitate bat da. Urtero, 4.000 pertsona baino gehiagok jasotzen dute Nafarroan minbizi-diagnostikoa, eta 1.500 baino gehiago hiltzen dira.

Pandemia honen ondoriozko krisiak larriagotu egin du minbizia duten pertsonen eta haien familien ahulezia sozial eta sanitarioko egoera, kalteberatasun bikoitzeko kolektiboa izaki: minibiziagatik eta COVID-19agatik.

Horregatik, beste inoiz baino beharrezkoagoa da Minbiziaren Plan bat lantzea, krisi honek eskaini dizkigun ikasbideen arabera, modu integratuz helduko dena egin beharreko hobekuntzei, dela Osasun Sistema Nazionalan, dela minibiziak jotako pertsonentzako gizarte-babesean, dela minbiziaren gaineko ikerketaren plangintza eta kudeaketa eraginkorrean, dela Nafarroako Gobernuak eta Osasun Departamentuak pandemian zehar gaixo onkologikoei eman beharreko arreta egokitzeari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernuak premiatzen ditu behar bezalako arreta sanitarioa eman diezaieten pandemian zehar gaixo onkologikoei.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du COVID-19rako Minbiziaren Plan bat presta dezan, gainerako autonomia erkidegoekin elkarlana eginez eta Osasuneko Lurraldearteko Kontseiluaren baitan, Osasun Sistema Nazionalak minibizirako estrategia berri baterako jorraturiko ildoaren barrenean.

Iruñean, 2020ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da babes-material egoki eta kalitatezkoa helaraz diezaien pertsona kalteberei.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita babes-material egoki eta kalitatezkoa helaraz diezaien pertsona kalteberei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

COVID-19agatik pandemia ondorio sanitario, ekonomiko eta sozial muntadunak dakartzan krisi

bat sortzen ari da. Pandemiak etorkizunari begira ekar ditzakeen ondorioak minimizatzen saiatzeko, beharrezkoa da neurri ezberdinak ezartzea.

Ebidentzia zientifikoak azaltzen du kutsatzeak murrizteko neurri eraginkorretako bat dela biztanleriak orokortasunez erabiltzea maskara.

Nafarroan, Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduaren bitartez, maskara-erabilerari buruzko prebentzio-neurriak hartu ziren.

Foru agindu horretako hirugarren puntuan, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak konpromisoa hartu zuen maskara-irispidea biztanleria kalteberari errazteko.

Alabaina, foru aginduaz geroztik hiru hilabete eta erdi baino gehiago igaro diren honetan, Nafarroako Gobernuak ez du oraindik zehaztu zein diren foru aginduak aipatzen zituen biztanle kalteberak, ez eta horiei maskararik helarazi ere.

COVID-19agatik pandemiaren kudeaketak Nafarroan izandako emaitza eskasek behartzen dute bilakaera txar horren balizko zergati guztiak ebaluatzea, eta horiek onbidatu eta agerraldiak kontrolatzeko neurri eraginkorrak ezartzera.

Alde horretatik, modua legoke nafar biztanleriaren parte batek kalitatezko behar bezainbeste mas-

kara eskuratzeko daukan zailtasuna gainditzeko, baldin eta babesmateriala Gobernuak helaraziko balie zailtasunak edo arriskua dituzten pertsoneri.

Halaber, osasun-etxeetan eta zentro soziosanitarioetan pertsoneri bisitak egiteko eta lagun egiteko gaur egun dauden murriztapen zorrotzak ondorio muntadunak ekartzen ari zaizkio pertsonen osasun fisiko nahiz mentalari, beraientzat konplexuak diren inguruabarretan inposatutako bakardadetik eratorriak. Nafarroako Gobernuak babesmaterial indibidual egokia eta kalitatezkoa bermatu behar du zentro horietako egoiliar diren pertsoneri bakardade horren ondorio negatiboak samurtzearen lagun egitera joaten direnentzat, Covidaren ondoriozko kutsatzeak ekiditeko segurtasun punta-puntakoa bermatzearekin batera.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du babesmaterial egoki eta kalitatezkoa helaraz diezaien, dohainik eta berehala, pertsona kalteberei.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du protokoloak berriki ditzan, osasun-etxeetan eta zentro soziosanitarioetan dauden pertsoneri bisitak segurtasun-baldintzetan egitea baimendu eta malgutzeko, eta babes indibidualeko ekipoak berma diezazkien lagun-egite zereginak baldintza horietan betetzen dituzten pertsoneri.

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak eta Diputatuen Kongresuak premiatzen dira berma dezaten irakaskuntza gaztelaniaz eta kasuan kasuko lurraldeetan koofizialak diren gainerako hizkuntzetan jasotzeko eskubidea, gaztelania lurralde nazional osoan komunikazio-hizkuntzatzat har dadin, eta gainerako hizkuntza koofizialak ere halakotzat har daitezkeen dagozkien lurraldeetan.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak eta Diputatuen Kongresuak premiatzen baitira berma dezaten irakaskuntza gaztelaniaz eta kasuan kasuko lurraldeetan koofizialak diren gainerako hizkuntzetan jasotzeko eskubidea, gaztelania lurralde nazional osoan komunikazio-hizkuntzatzat har dadin, eta gainerako hizkuntza koofizialak ere halakotzat har daitezkeen dagozkien lurraldeetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Berriki jakin denez, espainiera edo gaztelaniak “komunikazio-hizkuntza” estatutua izateari utziko dio Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa aldatzeko Lege Organikoan, zeina prestatzen ari baitira Hezkuntza Ministerioa eta ponentzia bat, Diputatuen Kongresuko Hezkuntza Batzordean xede horretarako eratua. Partido Socialista Obrero Español, Unidas Podemos eta Esquerra Republicana de Catalunya-k aurkeztutako zuzenketa batek 2019ko otsailean aurkeztu zen lege proiektuko hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarriaren testua aldatzea proposatu du. Testu horrek honako hau zioen: “Hezkuntza-administrazioek bermatu eginen dute ikasleek duten eskubidea, irakaspenak Estatuko hizkuntza ofiziala den gaztelaniaz hartzekoa, bai eta gainerako hizkuntza

koofizialez ere, zein bere lurraldean. Gaztelania eta hizkuntza koofizialak komunikazio-hizkuntzat hartzen dira, aplikatzekoa den araudiaren arabera”. Aipatu zuzenketak esaldi hori ezabatzen du eta, halatan, autonomia erkidegoen eskuetan uzten du beren lurraldeko hezkuntza-alorrean komunikazio-hizkuntza zein den zehaztea.

Nahiz eta egia den zuzenketak ez dituela ezabatzen aipatu xedapen gehigarriko bigarren eta laugarren puntuak, zeinetan ezartzen baita, hurrenez hurren, “oinarrizko hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek osoki eta modu berean menderatuta izan beharko dute gaztelania eta, kasua bada, tokian tokiko hizkuntza koofiziala”, eta “Bai Gaztelania eta Literatura bai Hizkuntza Koofiziala eta Literatura irakasgaiak kasuko hizkuntzetan irakatsi beharko dira”, gaztelania lurralde osoan komuni-

kazio-hizkuntzat hartua izatearen aipamena ezabatze horrek eskubide-galera larria ekartzen die nafarrei, bai eta espainiar guztiei ere.

Erabaki proposamena

1. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernu eta Diputatuen Kongresua premiatzen baitira berma dezaten irakaskuntza gaztelaniaz eta kasuan kasuko lurraldeetan koofizialak diren gainerako hizkuntzetan jasotzeko eskubidea, gaztelania lurralde nazional osoan komunikazio-hizkuntzat har dadin, eta gainerako hizkuntza koofizialak ere halakotzat har daitezkeen dagozkien lurraldeetan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen da modu argi eta zehatzean adieraz ditzan hezkuntza maila bakoitzerako mailaz igotzeko eta titulua emateko irizpideak.

JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen baita modu argi eta zehatzean adieraz ditzan hezkuntza maila bakoitzerako mailaz igotzeko eta titulua emateko irizpideak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Apirilaren 22ko 365/2020 Ministro-aginduan, 2019-2020 ikasturteko hirugarren hiruherkorako eta 2020-2021 ikasturtearen hasierarako jarduteko jarraibideak eta esparrua ezartzen dituenak, COVID-19ak eragindako krisia dela-eta, ahalbidetu zuen joan den ikasturtearen amaierako ebaluatu, mailaz igo eta tituluak emateko irizpideak. halako moduan non inongo ikasleek ez zuen kalterik jasoko pandemiak eragindako aparteko egoeratik.

Aipatu aginduak islatzen zuen Hezkuntzako Konferentzia Sektorialean Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eta autonomia-erkidego batzuen artean lortutako akordioa eta berresten zuen DBHko eta Batxilergoko titulazioa izan behar zela “ohiko praktika” eta errepikatzea “guztiz salbuespeneko”, eta horretarako ez zela kontuan hartuko ikasleen gainditu gabekoen kopurua. Oso kritiko agertu ziren hezkuntzako hainbat sektore, irakasleen eta ikuskatzaileen sindikatu profesionalak, gurasoen elkarteak, ikastetxeen federazioak eta 2020ko apirilaren 15eko Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren akordioa sinatu ez zuten autonomia-erkidegoak.

Aipatu kritika horien oinarri nagusia zen ministro-agindu batek ezin zuela aldatu lege organiko bat, kasu honetan LOMCE, zeinak ezartzen baitu DBI titulua lortzen ahal dela, gehienez ere bi irakasgai gainditu gabe, beti ere horiek ez badira aldi berean Hizkuntza eta Matematika, eta Batxilergo titulurako gainditu behar dira etapa osatzen duten bi irakasmaitetako irakasgai guztiak; beste alde batetik, Estatuak eskumen osoa du titulu akademiko emateko, Konstituzioaren 149.1 artikuluan jasotzen den moduan.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak bere jarraibideak igorri dizkie ikastetxeei ikasturtearen amaierarako, 2020ko apirilaren 28an, eta berresten du izaera orokorrek ez dela kontuan hartu behar alde aurretik etapetarako programatu diren ebaluazio-irizpideak modu hertsian betetzea, errepikapena salbuespenezkoa izanen dela eta funtsezko araua izanen dela titulaztea, honakoa hau kontuan hartuta: “Ez titulatzeko erabakia gordeko da salbuespenezko egoeretarako, irakasle taldeak proposatuta eta ikastetxeko hezkuntza orientazioko departamentuak aldeko txostena emanda. Ez titulaztea jakinaraziko da Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak emandako justifikazio-txostenarekin batera”. Alegia, irakasleak eramaten dituzte muturreko egoera bateraino non, indarreko araudiak lege ezarritakoa eta mailaz igotzeko eta titulazioa emateko irizpideak betetzeko, txosten berekiekin eta kanpokoekin justifikatu behar baitira, Ikuskapen Zerbitzuaren aurrean, irakasle-taldeei eta ez beste inori dagozkien erabaki pedagogikoak.

Emitza begi bistakoa da, eta aski da adibide bat: 18/19 ikasturtean 2. maila egiten ari ziren ikasleetatik (2905) Batxilergoko titulurik lortu ez zutenak izan ziren 266, 19/20 ikasturtean maila berean zeuden ikasleetatik (3224) lortu ez zutenak izan ziren 106.

Egoera hori errepikatu da oraingo ikasturtean irailaren 29ko 31/2020 Errege lege-dekretuarekin; haren bidez neurriak hartzen dira unibertsitatez kanpoko hezkuntzan, 6. artikuluan ezarrita titulua akademikoak eskuratzea “ez dela baldintzatuko gainditu gabeko irakasgairik ez egotera”; horrela, bilatzen da ikasleak mailaz igotzea automatikoki

eta autonomia-erkidegoen eta kasua bada ikastetxeen eta irakasle taldeen borondatearen arabera uzten da maila indibidual eta kolektiboan hain garrantzitsuak diren erabakiak hartzeko erantzukizuna.

Erabaki horien azken emaitzak arriskuan jartzen du Espainiako ikasleen aukera-berdintasuna, hura doitzen delako bizi diren tokiaren arabera, eta gainera urratu egiten du segurtasun juridikoaren printzipioa, funtzionario publikoak babesgabetsun egoera nabarmenean utzita.

Hori guztia, nahiz eta azken egunotan Fiskaltzak ikerketa bat ireki duen ziurtatze aldera Hezkuntzako ministroak eta autonomia erkidegoetako arduradun batzuk legearen urraketarik egin ote duten lehen aipatutako 365/2020 Ministro-agindu hori onestean, LOMCEk ezarria aldatzen delako lerrun baxuagoko lege-tresna batekin.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen du, modu argi eta zehatzean adieraz ditzan hezkuntza maila bakoitzerako mailaz igotzeko eta titulua emateko irizpideak, eta horiek aldatu behar izanez gero, egin dadin indarrean dagoen lege organikoa aldatuz, eta ez utzita autonomia-erkidegoen irizpidearen arabera.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, modu egokian helaraz ditzan, interpretatzeko aukerarik utzi gabe, hezkuntza maila bakoitzerako mailaz igotzeko eta titulua emateko irizpideak, eta ez utzita dagokion ikastetxe, irakasle-talde edo irakaslearen irizpidearen arabera.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, berriro eman diezaien Nafarroako irakasleei konfiantza eta errespetua, haien irakasle-lanean, erakutsi duten profesionaltasunean eta ikas bakoitzarentzat egokiena dena erabakitzeko gaitasunean.

Iruñean, 2020ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren sektoreko jarduerak susta ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kulturaren sektoreko jarduerak susta ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzorritz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako gazteendako kultur politikak taxutzeari buruzko honako mozio hau aurkeztu du, 2020ko azaroaren 12ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Administrazio publikoen betebeharra da ongizatearen estatua berreskuratu, mantendu eta zabaltzea, kultura gizartea egituratzeko ardatz gisa ulertuz.

Kultura ondare historikoa, materiala eta immateriala da. Gure aniztasun handiari gehitzen zaio eta, horregatik, eskura ditugun baliabideak erabili behar ditugu. Garapen ekonomikoaren ikuspuntutik uste eta espero dugu neurri eta kudeaketa zehatzen bidez lagundu ahaliko dela ekintzaileen sektorea, talentu gaztea etorkizuneko ekintzailetzaren eta enplegu sorreraren iturburua izanen delakoan.

Zeharkako ikuspuntu batetik, turismoa edo hezkuntza bezalako arloak garapen sozialaren moduan, arreta berezia eman behar diogu tokiko administrazioari, kultur jarduera gehien biltzen duena baita, eremu horiei erraztasunak emanez sektorea sendotzeko.

Nafarroan zorionez ondare historiko-artistiko eta kultural garrantzitsua dugu. Badugu sentiberatasun kulturala, eta aniztasuna. Nafarroa garapen kulturean eredu eta aitzindari izateko osagai guztiak dituen erkidego bat da.

Halaber, uste dugu aitorpena duen sektore profesionalizatu batek aukerak, eskubideak eta aberastasun sozial eta ekonomikoa ekarriko dituela, zerbitzuak emanen dizkiela tokiko administrazioei, biztanlerik gabe geratzeko arriskuko eremuetan, uste dugu sektore sortzailea izan daitekeela eta enplegua egonkortuko duena; gainera isla eta erakargarri nagusietako bat izanik aniztasun paregabea duen nafar lurraldean.

Gazteriak, etorkizun gisa, baina orainaldi gisa ere bai, izan behar du kultur politiken protagonista, ulertu behar da garapen sozial eta kultural bat dela eta arreta berezia jaso behar du administrazio publikoen aldetik

Gazteriaren prestakuntza kulturala funtsezkoa da gure gizartean benetako kohesioa lortzeko, zeinak gazteriari eta gizarteko gainerakoei ahalbidetuko baitie modu batu eta kohesionatuan ekitea.

Gazte-politiken zeharkakotasunetik, kultura eta lurralde-kohesioa ere sartuta, politiken oinarri nagusia gazteriak izan behar du, kolektibo gisa.

Gazteen balioak gizarteko gainerakoendako inspirazio-iturri izan behar dira. Gazteen artea, esate baterako, goraka doan balioa da gazteriarentzat. Halatan, gazteria izan behar dugu zeharkako erreferente gisa Nafarroako Gobernuari dagozkion politiketan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Kulturaren sektoreko jarduerak susta ditzan, ahalbidetuko dutenak kalitatezko proiektuak sortzea eta garatzea eta, halaber, egonkortzea enplegua eta ekintzailetza Nafarroako marka sozial eta ekonomiko gisa.

- Kultura Zuzendaritza Nagusiaren programa artistiko berekiak susta ditzan, Nafarroako kulturaren sektorea laguntzeko eta babesteko tresna gisa.

- Tokiko administrazioak babestu ditzan lurraldearen sustapen eta dinamizazio soziokulturalean duten eginkizunean.

- Kulturaren atari digitala bultzatzen jarrai dezan, Nafarroako herritar oro kulturara iristeko tresna gisa.

- Gazte txarteletik inklusioa berma dezan, kulturarako irispidea sustatuz Nafarroako lurraldearen eta kulturaren aniztasuna.

- Gazteen sormena sustatzen jarrai dezan, industria sortzaile eta digitalen arloan.

- Arte gaztearen topaketen aldeko apustuarekin jarrai dezan, Nafarroako gazteek bilkura egiteko eta diziplina artistikoetan bateratze lana egiteko tresna gisa.

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Eleduna: Ramón Alzorric Goñi

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da diseina ditzan gizon helduei zuzendutako indarkeria matxistei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita diseina ditzan gizon helduei zuzendutako indarkeria matxistei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Berriki azterlan bat ezagutu dugu, INAI-NABik eta NUPEk elkarrekin egina, eta generoan adituak diren Paola Damontik, Rut Iturbide Rodrigok eta Patricia Amigot Leachek gidatua. Izena du "Vio-

lencia contra las mujeres mayores.. Interacción del sexismo y edadismo".

Aipatu azterlanean aztertzen da nolako eragina duten indarkeria matxistek eta egiturazko indarkeriek 50 urtetik gorako emakumeengan. Eskaintzen dituen datuetako bat: urtarrietik ekainera bitarte erregistratutako salaketetatik % 11,7 adin tarte horretako emakumeek jarri zituzten. Azterlan beharrezkoa zen, ez zegoelako ia ikerketa lanik haien egoera genero ikuspegitik eta begirada feministarekin aztertzen zuenik, eta COVID-19ak agerian utzi du.

Azterlan ezin beharrezkoagoa, erakusten dizkigun emakumeak beren burua azpibalaratuta ikusten dutelako, eguneroko arloetan ikusezin bihurtuta; atzematen dute emakume-estereotipo batzuk daudela, zeinen edertasun kanonek haien diskriminazioa areagotzen duten eta, nola ez, emakume bihozberak izateko agindu soziala, haien egitekoa bestearendako izatea delako. Horren ondorioak: lan-zama ugalketan, arlo pribatuetan, zainketetan, eta ondorioa du norberaren denbora ezin baliatzea eta ezin kontziliatzea, norberaren denbora herritarren eskubidea bada ere.

Gainera, azterlanak proposamenak egiten ditu administrazio publikoek kontuan har ditzaten haien berezitasuna eta beharrezkoak, eta hori da hartu eta landu behar dugun agindua.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

- 1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, diseina daitezten indar-

keria matxistei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak, gizon helduei zuzenduak, tresnak izan ditzaten ezbaian jartzeko indarkeriazko jokararak, fisikoak zein psikologikoak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, emakume horiek artatzen dituzten profesionalak prestakuntza berariazkoa eta berezitua izan dezaten.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliabide gehiago eman diezazkien emakumeak ahalduzera bideratutako programei, 50 urtetik gorako emakumeendako

estrategia berariazko bat diseinatuz, prozesu hori baita behar dena kontzientzia hartzeko, erabakia hartzeko indarkeriaren egoeratik atzeratze aldera.

4.- Nafarroako Parlamentuak bere esker ona adierazten die kolektibo, erakunde, elkarte eta sare komunitario eta elkartasunezkoiei, laguntza emozional, ekonomiko eta soziala eskaini dietelako emakumei eta neskatuei, bereziki 50 urtetik gorako emakumei, azterlanak jasotzen duen moduan.

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa premiatzen da 2020an ekin diezaien AP-68 autobideko lotunea osatzeko aurreikusitako obrei, Lodosako 14. lotunean.

LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetu dadin Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko honako mozio hau: "Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa premiatzen da 2020an ekin diezaien AP-68 autobideko lotunea

osatzeko aurreikusitako obrei, Lodosako 14. lotunean". Mozioa 2019ko urriaren 29ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/MOC-00070).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren tresnak eta baliabideak gaitu ditzan Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea garatzeko.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2020ko azaroaren 4an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren tresnak eta baliabideak gaitu ditzan Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea garatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait lasterren gaitu ditzan gaitu beharreko tresnak, edota bideratu beharreko baliabideak bideratu ditzan, halako moduan non lege hau garatzean inork ere ez dezan arazorik edo eragozpenik izan Nafarroako Administrazio Publikoko ezein departamentutan lan batean jarduteko, lanpostu publiko bat lortzean ekitate nahiz irisgarritasun printzipioak betez hartara”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da albait lasterren egin ditzan beharrezkoak diren kontratazioak eta plantilla-handitzeak, administrazio zentralarekiko izapideetako atzerapen larriak eta itxarote-zerrendak onbideratzeko.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2020ko azaroaren 4an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da albait lasterren egin ditzan beharrezkoak diren kontratazioak eta plantilla-handitzeak, administrazio zentralarekiko izapideetako atzerapen larriak eta itxarote-zerrendak onbideratzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du albait lasterren egin ditzan egin beharreko kontratazioak eta plantilla-handitzeak, Administrazio zentrolean egin beharreko funtsezko izapideak egitean –esaterako, erretiro-pentsioak izapidetzean, langabezia-prestazioak aitortzean edo nortasun agiria berritzean– herritarrek pairatzen dituzten atzerapen eta itxarote-zerrenda larriak konpontzeko”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Espetxeetako Osasungintzaren transferentziari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Espetxeetako Osasungintzaren transferentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santos Itoiz jaunak azaroaren 13an, ostiralarekin, izanen den Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean ahoz erantzun dezan:

- Zertan da Espetxeetako Osasungintzaren transferentzia egiteko prozesua?

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, sexuaren araberako segregazioa egiten duten ikastetxeak funts publikoekin finantzatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, sexuaren araberako segregazioa egiten duten ikastetxeak funts publikoekin finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Diputatuen Kongresuan Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa aldatzeko Lege Organikoa izapidetzeko prozesuan zuzenketa bat onetsi da, eta bertan adierazten denez "hein batean edo osorik funts publikoekin sostengatutako ikastetxeek hezkidetzaren printzipioa garatuko dute hezkuntza-etapa guztietan", Berdintasunari buruz-

ko 2007ko Legeari jarraikiz, eta “ez dituzte ikasleak bereiziko generoaren arabera”.

Ikusita legegintzako aurrerabide garrantzitsu hori, lege organiko batean gauzatuko dena, zein da Gobernuaren balorazioa sexuaren araberako segregazioa egiten duten ikastetxeak funts publi-

koekin finantzatzeari uzteari buruz eta zer aurreikuspen du irizpide hori indarrean sartzen denetik aplikatzeari dagokionez?

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean.

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Luzatzea Mahaiaren 2020ko urriaren 26ko erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzen baita.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2020ko azaroaren 4an argitaratu da 58/2020 Foru Agindua, azaroaren 4koa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez luzatu eta zati batean aldatzen baita Osasuneko kontseilariaren urriaren 21eko 57/2020 Foru Agindua, berariazko prebentzio neurri apartekoak hartu zituena Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izandako bilakaeraren ondorioz. Hori dela eta, beharrezkoa da esparru parlamentarioan berriro ere luzatzea 2020ko urriaren 26ko Erabakiaren bidez —urriaren 29an egindako aldaketa barne— harturiko gomendio eta neurriak, zeinak eritasunaren transmisioa gutxitze aldera eta laguntzeko betebeharrak emandako errekerimendu orokorrari kasu egite aldera hartu baitziren. Neurri horiek dakarte, besteak beste, barneko gune itxietan baimenduriko gehienezko edukiera gutxitzea eta Parlamen-

tuz kanpoko jarduera presentzialak bertan behera uztea. Neurri hauek aldi baterako aurreikusi dira, 2020ko azaroaren 23a arte hain zuen.

Horrenbestez, honako hau ERABAKI DA:

1. Baldintza berdinetan luzatzea Mahaiaren 2020ko urriaren 26ko erabakia —2. puntutik 4. puntura bitartekoak barne—, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzen baita.

2. Erabaki hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta 2020ko azaroaren 23ra arte iraunen du, eta egoera epidemiologikoaren arabera Mahaiak zehazten ahalko du horren luzapena, aldaketa edo bertan behera uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias